



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Imanol Baleztena Elizalde.
Francisco Michelena Celayeta.
Ezekiel Loiarde Santesteban.
José María Michelena Erasun.

2016ko apirilaren 19an, 08:00etan, aparteko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. OIHAN ENKANTEA.

2016ko apirilaren 12an egindako bileran erabaki zuen kontratazio-mahaiak, *Armizko* eta *Gorospillaga* parajeetako 2 egur loteak esleitzea behin-behineko.

Akta jendaurrean jarri zen, “sesta”ren ondorioetarako, eta ez zuen inork proposamen berririk aurkeztu.

Aipatutakoak kontutan hartuz, aho batez erabaki da:

1. *Armizko* parajeko lotea (741 laritz japoniar) behin-betiko esleitzea MADERAS LARRETA, SLri, HAMABI MILA ETA SEI EHUN EUROTAN (12.600 €), gehi dagokion BEZa.

2. *Gorospillaga* parajeko lotea (644 haritz amerikar) behin-betiko esleitzea MADERAS SANTESTEBAN, SLri, HAMAR MILA BOST EHUN ETA BERROGEITA HAMAR EUROTAN (10.550 €), gehi dagokion BEZa.

3. Akordio hau jakinaraztea adjudikatariei eta Nafarroako Gobernuari.

Eta bertzerik ezean, 08:10a direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.